

# Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:  
IHINTZA ERREMUNDEGUY

Jara mendia (Nafarroa Beherea)

## Irulegiko mahastien barrandan

Nafarroa Behereko kasko eta haranen artean, ez da ezagunena Jara. Baigorri eta Irulegi alde batetik eta Arrosa bestetik altzotan harturik, ez du tontor xut batez zerua zilatzen, udazkeneko haize hegoak leundu gailur borobildu bat da, antena erdian, kapelu bat iduri. Ez pentsa, halarik ere, hain erraza denik; itxura gozoa izan arren, izerdi puska bat isurarazten du beregana heltzen utzi aitzin.

Abialekura, hots, Irulegira iristeko, Donibane Garaziko bidea hartu (932 departamental eta gero 918a) eta Baigorriko bidegurutzera arte segituko dugu, Itsasu, Luhuso, Bidarra eta Arrosa bata bestearen ondotik iraganez. Arrosara heltzean, Donibane Garaziko bidea utzi eta eskuin hartuko dugu, Baigorriko norantzan (948 departamental). Baigorriko hirigunea baino pixka bat lehenago, errugbi zelaiaren parean –hau da, Nafarroaren Eguneko gu denon aparkalekuaren parean– ezkerreko zubia zeharkatuko dugu eta D 15 departamental hartuko Irulegiraino. Kasu, “Irulegi” bide seinalea ikustean ezker hartu behar da, karrikara heltzeko eta ahalaz eliza ondo-ko aparkalekuan autoa utzi.

Irulegiko eliza hartu dugu beraz abiapuntutzat. Bertatik ageri da jadanik Jara, aski hurbil dirudi gainera hodei guztiak uxatu dituen zeru garbi honetan, eta gutxitan kukutuko zaigu ibilaldian zehar.

**Lehen mahastiak bistan**

Herriko Etxerantz abiatu gara, eta eskuinerantz etxe artetik iraganez, ezkerrean etxe eta baratze baten artean bide bat antzeman dugu. Baratzean, txorien uxatzeko dilindan emanak diren zernahi koloretako trapuek –eta baita Colacao ontzi laranja batek– jostaturik, patar xumeari ekin diogu nolabait ibilaldia has-teko. Mahastiak ageri dira baina ez gara bertatik pasako.

Aitzina jarraikiz, goizeko freskuraren azken ferekak gozatuz, bidegurutze batera iritsiko gara. Eskuin *Prieuré*-ko kapera, XII. mendekoa, eta hilerria. Gu, ondotik igarotzen den erreka bidea xuxurlaturik, harri pikorrezko bidetik joanen gara aitzina.

Atakara heltzean eskuin hartuko dugu. Pasaleku aski hertsiki batetik iraganen gara udazkene-ko eguzki apalak itsuturik. Seila pasa eta berriz itxi ondoan, ezkerrean soka elektriko zuri baten petik iraganen gara eta eskuin segituko dugu, gorantz, bistan dena. Ezkerrean *“maison*


*de vigne”* antzeman dezakegu, tresnen atxikitzeko gunea.

Ezkerreantz, bihurgune makur batetik iragan eta Jara aitzinean dugula zuzen segituko dugu. Bizpahiru baserri daude txoko eder horretan. Haitz sendoaren itzaletik, Iparla, Buztanzelai eta Izpegi ikus ditzakegu.

Bidegurutzera iristean, eskuin igoko gara. Seinale batek “Jara”

eskuin markatzen du, autoentzat, baina gu zuzen joanen gara lurrezko bidetik. Askara heltzean ezker hartuko dugu. Bi aldiz antzemanen ditugu eskuinerantz bideak baina guk zuzen segituko dugu, otezko pasadizo hertsiki batetik erreka txiki batera heltzeko.

Beti bide nagusia segituz, Haotza mendia dugu gure aitzinean, ezkerrean aldiz Oilarrandoi, eta behean, Irulegi herria. Lur gorritzko bidearen





ertzetan, azpelarrak ageri dira. Harri bidetik segituz haize hego fresko batek kopeta hezea xukatzen digu birrikak freskatuz.

Eskuinean den belardira heltzean pausatuko gara. Eguzkiak jotzen du jada, nahiz eta ez udako bero sapa izan. Azpian Baigorri dugu. Intxaurrak eta masustak jateko aukera izan dugu bidean eta ez goaz tripa hutsik. Lehen atsedendaldi horren ondotik, sai batek bidea erakutsirik, gora goaz.

Lurrera erori gaztainen artetik patarra igoko dugu beti zuzen. Haitzaren itzal pean iraganen gara, iratze ihartu artetik bide eginez. Aitzina segitzeko bi aukera daude: belarretan behera jautsi eta lurrezko bidera iristean berriz goiti joan, ezker hartuz, belarretatik, edo bestela, zuzen segitu, bi bideak elkartzen baitira. Beti zuzen goaz. Bidean elorri zuria ikus dezakegu. Patar xut bat igo ondoren ezker hartuko dugu eta arditegian pausa. Arditegitik Arroza ageri da azpian eta eskuinetik ezkerrean Baigura, Ursuia, Artzamendi, Iparla eta Goramakil ditugu aitzinean. Goramakilen bestaldean, Aritzakun da.

### Nafarroa Beherea gure oinpean

Bidean atzeman gibel urdina zakuan sartu eta, ezker, azken aldapari ekinen diogu. Azkena eta zailena. Eta burura heltzean lahar buketa sari! Eskuin, animaliak tratatzeko labirinto bat antzeman dezakegu. Aldapa xuta xendra batetik zeharkatuz, azkenean gailurrera iristen gara. Parean Behorlegi dugu, gibelean Auñamendi eta behean aldiz Ortzaize, Irisarri eta Iholdi herriak.

Bazkaldu ondotik ez gara bide beretik itzuliko. Antenarantz aitzina segituko dugu, kasko honetatik ageri diren paisaia zoragarriari azken behako bat eman eta, bide nagusitik, gudroinezkotik, abiatuko gara. Azken antenaren parera iristean belarretatik igoz harrizko orientazio mahai zahar bat ikusiko dugu. Male-ruski, ez da gehiago erabilgarri.

### Saiak lagun

Bide nagusia paraleloki dugula, xendrarri jarraikiko gara. Iratzeak kilikatuturik beheiti joanen gara, ez dugu belar bidea hartuko. Saiak guri begira ditugu ekialdean. Arraroa da bakarrik ikustea, taldeka ibiltzen dira normalki. Azken hogeitertan babesturiko animalia da. Miruak ere ikusten ditugu.

## Bederatzi mende mahats biltzen

Irulegiko mahastiak 220 hektareakoak dira. Arnoaren historia, hemen, erromatar okupazioaren garaikoa da. 1120tik aitzina, Orreagako abadiako fraideek Irulegi eta Anauze inguruan mahastiak landatu zituzten. XVII. mendean, Urdozeko (Baigorriko auzo bat) jaunak mahastia garatu eta handitu zuen; XVIII. mendean arrakasta handia ezagutu zuen. XX. mende hastapenean 1.700 hektarea ziren, baina *phylloxera*ren malura iritsi zen.

Hastapenean bigarren aktibitatea zen edo norberaren kontsumorako ekoizten zen, baina orain bertako laborarien mozkin nagusi bilakatu da. Gaur egun, 45 ekoizle bilduak dira mahastizainen sindikatan.





Gudroi bidera iristean, ezker hartuko dugu, beherantz. Pentzean zehar zuzen segitu eta ezker hartuko dugu gudroi bidea utzirik. Beti zuzen joanen gara eta bidegurutzean ezker hartuko dugu. Aldiz ondoko aukeran ez dugu eskuin hartuko, baizik eta zuzen.

Harkaitz pareta baten babesean goaz aitzina, ur xirrista bat segituz beti. Ezkerretara beheiti hartuko dugu, bidea utziz eta zuzen segituz. Bidegurutzera iristean zuzen joateko

aukera izan arren ezker hartuko dugu, igoeran gaitzetsi "Jara" bide seinaleari jarraikiz. Aldiz Azkarateko seinalea agertzean eskuin hartuko dugu, mahastiak ikusteko gisan. Aurretan, hezetan gehiegiarengatik, mahats-biltzea bi astez aitzinatu dute eta eskuz lanean ikusi ahal izan ditugu biltzaileak.

Mahastietatik ateratzean ezker hartuko dugu eta borda bat ikustean eskuin. Ez gara upatzerakoan bezala soka azpitik lerratuko; aldi honetan,

zuzen jarraikiko gara. Berriz hastapean ikusi kolore guztietako oihal eta Colacao ontziaren ondotik pasatzean, eskuinean etxe bat ikusi eta harantz joanen gara. Zubia zeharkatu eta stop-ean –gelditu gabe– ezker. Ibilaldia astoz egitea proposatzen duen "Escap'ane" etxetxoaren ertzetik iragan eta elizara helduko gara. Ibilaldia, hasi garetik bost oren baino gehiago pasa direnean, bukatu da, eta aparkaleku ondoko mahaian askal dezakegu. On egin diezagula. ■

## kulturagenda

Azaroaren 1etik 15era



Urdaneta kalea, 9 | 20006 donostia

Multimedia erakusketa

### Batekmila-Euskal munduak

Ganbaran

Irailaren 19tik azaroaren 17ra

Erakusketa

### Artista Berrien XLII Lehiaketa

Urriak 9- azaroak 10



Kristobaldegi, 14 | 20014 donostia

www.arteleku.net

Symposiuma

### Hiri ekoizpenak: hiru ikuspuntu, hiru eskala, hiru azterlan

[www.hiriekoizpenak.net](http://www.hiriekoizpenak.net) | Sarrera doan. Leku mugatua

Asteartea, **azaroak 6**  
19:30. Jaime Ireguren hitzaldia  
*Lekuz kanpoko museoa*  
Erakusketa taktikak espaziopublikoan

Asteazkena, **azaroak 7**  
19:30. Carlos Niñoren hitzaldia.  
*Espazio publikoa, modernitatea*  
eta hirugarren mundua.

Osteguna, **azaroak 8**  
19:30. Ramon Parramonen hitzaldia  
*Buscando el Norte* (Iparraren bila)  
20:15. Hitzaldi-diaporama  
Iñaki Uriarteren eskutik. *Bilbo berria.*  
*Metropoli baten metamorfosis, 1983-2007*  
21:00. Eztabaida

Astelehena, **azaroak 12**  
19:30. Kalearteak dokumentalaren proiektzioa, 2007, 60'  
Aurkezpena Hiria Kolektiboak egingo du

Asteartea, **azaroak 13**  
19:30. Pilar Vegaren hitzaldia  
*Bizimodu berriak lurralde suburbialean*

Asteazkena, **azaroak 14**  
19:30. Itziar Vellidoren hitzaldia.  
*Les yeux de la ville* (Hiriaren begiak)

Kontrapuntuak: Amaia Casado, Andoni Etxezarreta, Jorge Lastra, Olaia Miranda, Ibon Salaberria.

